

BALIABIDEAK

Baliabide egokiak erabiliz, enpresa baten helburua bezeroengana iristea, hauekiko harremanak mantentzea eta diru sarrerak lortzea da. Helburu horiek lortzeko hainbat baliabide mota daude: baliabide fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoen barruan beharrezkoak izango ditugu, banaketa sarea eta sistema informatikoak. Sistema informatikoak gure produktuak behar duen aplikazioa sortzeko erabiliko ditugu eta banaketa sarea, hau da, produktuak garraiatzeko modua, online bidez egingo dugu, bezeroengana iristeko modu baliagarriena delako.

Baliabide intelektuari dagokionez, marka beharko dugu bakarrik, gure produktua identifikagarria izateko. Giza baliabideetan, sormena izango da garrantzitsuena, izan ere, diseinu erakargarriak sortu beharko ditugu bezeroei atentzio deitzeko. Horrez gain, gaitasun komertziala ere beharko dugu.

Amaitzeko, finantza baliabideak beharrezkoak ditugu gure negozioa zabaltzeko, izan ere, enpresa bat aurrera eramateko dirua behar da.